



2009/12/7ko prentsa-oharra

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO ESTATISTIKA (OFIN). 2009ko 3. hiruhilekoa

Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 9,1 hilabetekoa da, duela urtebete baino hilabete bat pasatxo gehiago.

2009ko bigarren hiruhilekotik hirugarren hiruhilekora metro karratu erabilgarriaren prezioa % 2,3 jaitsi da etxebizitza erabilian eta % 0,1 etxebizitza berri librean Euskadiko Autonomia Erkidegoan

2009ko hirugarren hiruhilekoan etxebizitza erabiliaren metro karratu erabilgarriaren batez besteko prezioa (Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Higiezin Eskaintzari buruzko Estatistikak eskaini du) bigarren hiruhilekoarekin alderatuta % 2,3 jaitsi da eta aurreko urtearekin alderatuta % 10,6, horren ondorioz 3.817 euroraino iritsita.

Araban higiezin agentziek eskainitako etxebizitza erabiliaren metro karratua % 0,5 igo da hiru hilabeteen, baina % 5,9 txikiagoa da 2008ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian % 5 jaitsi da bigarren hiruhilekoarekin alderatuta eta % 15,9ko jaitsiera metatzen du azken 12 hilabeteetan. Gipuzkoan modu egonkorragoan eusten dio prezioak, eta % 1,3 jaitsi da azken hilabeteen eta % 4,1 urtean.

Donostian eta Bilbon etxebizitza erabilien metro karratuko prezioa % 4 eta % 3 jaitsi da hurrenez hurren azken hiru hilabeteetan, eta Gasteizen, aldiz, murrizketa % 0,6 izan da Urteko bilakaera kontuan izanda, Bilbon % 11,1eko hazkunde negatiboa metatu da, Donostian % 5,1 gutxiago eta Gasteizen % 5,9 gutxiago.

Higiezin agentziek bitartekari-lanak egiten dituzte, eta aditzera ematen dutenez, etxebizitza erabilien prezioak batez beste % 13,2 inguru jaitsi beharko dituzte saltzaileek salmenta-eragiketak egikaritzeko. Ehuneko hori portzentajezko 3 puntutan hazi da azken hamabi hilabeteetan, baina portzentajezko 0,6 puntu jaitsi da urte horretako bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Etxebizitza berri librearen metro karratuaren eskaintza-prezioak (4.039 euro) ia ez du aldaketarik izan, hiruhilekoan % 0,1 jaitsi baita, % 0,9ko urteko erorketa metatuta



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico


Etxebizitza berri librearen metro karratuaren prezioak ez du aldaketarik izan Araban 2009ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta eta % 8,5eko hazkundera metatu du azkeneko 12 hilabeteetan. Bizkaian % 1 jaitsi da bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 5,6 galdu du urte osoan. Gipuzkoan, aitzitik, metro karratuaren prezioa % 2,1 igo da azken hiru hilabeteetan, azken urtean % 0,9 metatuta.

Etxebizitza librearen metro karratuaren prezioa % 3,0 igo da Donostian azken hiruhilekoan

Gasteizen, aitzitik, etxebizitza librearen eskaintza-prezioek % 2,4 egin dute behera, eta Bilbon, aldiz, ia ez dute aldaketarik izan, % 0,1 negatiboa. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza librearen metro karratuaren eskaintza-prezioa % 6,6 igo da Gipuzkoako hiriburuan Gasteizek eta Bilbok, aldiz, prezioen % 4,8ko eta 3,5eko murrizketa metatzen dute hurrenez hurren.

Enpresa sustatzaileek eta higiezin agentziek etxebizitza librearen guztizko prezioa 8.542 eurotan jaitsi dute azken 12 hilabeteetan, % 2,5

Etxebizitzaren m² erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2009. Euskadiko AE. Euroak.



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika

ETXEBIZITZA-TIPOA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskaintakoa, akabera-maila "normalarekin" eta 60-90 m²-ko azalarekin.

Enpresa sustatzaileek eta higiezin agentziek eskaintako etxebizitza libre berriaren batez besteko prezioa 2009ko hirugarren hiruhilekoan 331.500 euro izan da, eta % 1 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko eta % 2,5 azken hamabi hilabeteak kontuan hartuz gero.



Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa —314.200 euro— 17.300 euro gutxiago da batez beste etxebizitza berri librearena baino, % 2,3 jaitsi da azken hiruhilekoan eta jada % 7,5eko jaitsiera metatu du azken 12 hilabeteetan, 25.500 euroko murrizketarekin.

Araban % 0,5 jaitsi dira etxebizitza librearen eskaintza-prezioak azken hiruhilekoan, eta erabiliak, aldiz, eutsi egiten dio, % -0,1. 2008ko hirugarren hiruhilekoa erreferentziazat hartuta, % 7,1eko igoera metatzen du lurralde horrek etxebizitza libre berrian, baina % 2,8ko jaitsiera erabilitakoan. Etxebizitza librearen batez besteko prezioa 288.000 eurora iristen da lurralde horretan, eta erabiliarena 287.500 eurora.

Bizkaian, hirugarren hiruhilekoan etxebizitza libreak izan duen eskaintza-prezioa 329.100 euro izan da, eta % 1,6 erori da azken hiru hilabeteetan eta % 7,6 azken urtean. Erabiliak % 4,6 jaitsi zuen bere prezioa bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 11,7 azken hamabi hilabeteetan; gaur egungo batez besteko prezioa 307.400 euro da.

Etxebizitzen batez besteko prezio altuenei eusten dien Gipuzkoan, aldiz: 357.400 euro etxebizitza berri libre eta 376.300 euro bigarren eskukoa. Lehenengo motaren prezioak % 0,3ko aldaketa izan du azken hiru hilabeteetan, eta erabiliarenak, aldiz, % 1,8ko jaitsiera izan du. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza berri libreak % 0,8ko murrizketa izan du eskaintza-prezioan eta bigarren eskuko etxebizitza saltzen zutenek % 6,7 jaitsi zituzten beren eskaintza-prezioak.

Etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 36.100 euro jaitsi zen Bilbon, 28.800 Donostian eta 6.800 Gasteizen azken hamabi hilabeteetan

Higiezin agentziek eta enpresa sustatzaileek % 3,7 gutxitu dituzte etxebizitza berri librearen salmenta-prezioak Gasteizen, % 0,8 Bilbon, eta Donostian, aldiz, % 0,7ko gorakada txikia izan dute, eta dagokien batez besteko prezioa 308.300, 394.900 eta 462.300 euro izan da hurrenez hurren. Azken 12 hilabeteetan Gasteizek eta Bilbok % 8,5eko eta % 8,4ko murrizketa metatu dute hurrenez hurren, eta Donostian, aldiz, % 1,5 igo dira prezioak.

Etxebizitza erabiliaren salmenta-prezioa % 0,8 murriztu da azken hiruhilekoan Autonomia Erkidegoko hiriburuan, % 0,3 Bilbon, eta Donostian, aldiz, % 4,5era iritsi da jaitsiera. Lehenengoan, 2008ko hirugarren hiruhilekotik, % 2,8ko jaitsiera —8.400 euro gutxiago batez beste— ikusten da, Bilbon % 5,3koa —19.800 euro gutxiago—, eta Donostian, aldiz, % 8,1 jaitsi da, hau da, 42.500 euro gutxiago.

Azken urtean % 8,8 igo da higiezin agentziek eta erakundeek egindako alokairuko etxebizitzaren eskaintza



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Alokairuko etxebizitzaren —librea eta soziala— eskaintza-bolumena % 8,5 hazi zen azken hiru hilabeteetan eta % 8,8ko hazkundea metatzen du urtebetean, hau da, eskaintzaren guztizkoaren hamar etxebizitza bakoitzeko bat baino zertxobait gehiago.

Etxebizitza libreen alokairuko batez besteko errenta 894,3 euro da, bigarren hiruhilekoan baino % 3,1 gutxiago, eta erreferentzia gisa 2008ko hirugarren hiruhilekoa hartuz gero, % 6,4ko jaitsiera metatzen du prezioak.

Etxebizitza babestuen —BOEak eta etxebizitza sozialak— alokairuko batez besteko errenta 224,3 euro da, aurreko hiruhilekoa baino % 0,5 gutxiago eta hamabi hilabete lehenago baino % 1,3.

Sektore babestua —BOEak eta etxebizitza sozialak— eskaintako bost etxebizitza bakoitzeko bat ari da kolokatzten merkatuan, 114.400 euroko batez besteko prezioan, —1.454 euro metro karratu erabilgarri bakoitzeko—. Etxebizitza horien metro karratuaren batez besteko prezioa % 1,6 igo da azkeneko hiru hilabeteetan eta % 6,9 2008ko hiruhileko berarekin alderatuta.

Higiezinaren agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 9,1 hilabetekoa da, duela urtebete baino ia hilabete bat gehiago, baina aurreko hiruhilekoan baino ia bat gutxiago..



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2008ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZ		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	B.O. berria/Etxeb. Soziala	1.453		23,3	1,6	94,0	6,9
	Berria librea	4.039		-2,5	-0,1	-36,3	-0,9
	Erabilia	3.817		-90,9	-2,3	-450,3	-10,6
Araba	Berria librea	3.444		-0,7	0,0	268,5	8,5
	Erabilia	3.468		16,2	0,5	-218,6	-5,9
Bizkaia	Berria librea	4.078		-40,9	-1,0	-242,2	-5,6
	Erabilia	3.737		-197,2	-5,0	-706,5	-15,9
Gipuzkoa	Berria librea	4.310		87,2	2,1	40,5	0,9
	Erabilia	4.655		-60,6	-1,3	-196,8	-4,1
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) MOTAKO ETXEBIZITZA	3.380		-29,8	-0,9	-39,0	-1,1
Berria librea	Gasteiz	3.724		-93,2	-2,4	-185,8	-4,8
	Bilbo	5.135		-3,9	-0,1	-184,1	-3,5
	Donostia	5.532		159,7	3,0	340,9	6,6
Erabilia	Gasteiz	3.555		-22,4	-0,6	-224,3	-5,9
	Bilbo	4.242		-129,1	-3,0	-529,3	-11,1
	Donostia	5.727		-239,9	-4,0	-304,7	-5,1
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	B.O. berria/ Etxeb. Soziala	114,4		1,7	1,5	6,1	5,7
	Berria librea	331,5		-3,3	-1,0	-8,5	-2,5
	Erabilia	314,2		-7,2	-2,3	-25,5	-7,5
Araba	Berria librea	288,0		-1,4	-0,5	19,2	7,1
	Erabilia	287,5		-0,3	-0,1	-8,3	-2,8
Bizkaia	Berria librea	329,1		-5,4	-1,6	-27,2	-7,6
	Erabilia	307,4		-15,0	-4,6	-40,8	-11,7
Gipuzkoa	Berria librea	357,4		1,1	0,3	-2,8	-0,8
	Erabilia	376,3		-7,0	-1,8	-27,0	-6,7
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Guztizkoa	26.990	100,0	788	3,0	66	0,2
	B.O. Berria/Etxeb. Soziala	4.816	17,8	369	8,3	-1.183	-19,7
	Berria librea	5.241	19,4	-71	-1,3	432	9,0
	Erabilia	13.828	51,2	246	1,8	567	4,3
	Soziala/Librearen Alokairua	3.106	11,5	244	8,5	250	8,8
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	224,3		-1,0	-0,5	-3,1	-1,3
	Librea	894,3		-28,3	-3,1	-61,6	-6,4
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR		9,1		-0,9	-8,7	1,2	15,5
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOA. ETXEBIZITZA ERABILIAK		%		Aldea portzentaje puntutan		Aldea portzentaje o puntutan	
Euskadiko AE		13,2		-0,6	-4,7	3,0	29,1
Araba / Álava		7,8		-6,0	-43,4	1,7	27,4
Bizkaia		14,0		0,9	6,5	4,3	43,9
Gipuzkoa		13,6		-0,8	-5,5	2,2	19,7

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskaintakoa, akabera-maila "normalarekin" eta 60-90 m²-ko azalerarekin.

Ohar metodologikoa

Hiruhilekoaren amaieran elkarrizketatutako 119 higiezin agentziak eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak dituzten 171 enpresa sustatzailek osatutako lagin batetik atera dira 2009ko hirugarren hiruhilekoari buruz aurkeztutako datuak. Nolanahi ere, eskaintako prezioak dira, ez egindako salmenta-prezioak. Honela kalkulatu dira prezioak, eskaintza eta alokairuak: laugarren mailako batez besteko mugikorrek kalkulatu, ausazko aldaketak gutxiagotzeko.



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago:

*Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia
Donostia kalea, 1. 01011 Vitoria-Gasteiz.*

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.+34-945-01 97 12 Faxe:+34-945-01 64 07

Interneteko prentsa-oharrak: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>

Webgunea: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>